


## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2019/02/05)</b>	Diru-laguntzak	<p>- <u>Parte-hartzea sustatzeko diru-laguntza</u>: Urtarrilaren 11n Siadeco-koekin izandako bileraren berri eman da: gure batzordeak proposatutako zirriborroaren inguruko hausnarketa egin zen (lehentasunak, metodologia, faseak, irizpide demokratikoak, ...) Proposamena bidaltzekotan geratu ziren.</p> <p>- <u>Landaola</u>: Herrian fruta ekoizpena ugaria denez, adarrak sortzen duen hondakinei irteera eroso eta erabilgarria emateko xedearekin birrintzailea edo trituradora erosi nahi da diru-laguntza honekin. Erabilera bikoitza izango du: batetik auzo-konpostaguneetarako materia lehorra lortzea eta kalitatezko konposta, bestetik, etxeetan autokonpostajea xehetzea eta adarrak txikitzea.</p> <p>- <u>Bertako produktuen eskaintza bateratua</u>: Inguruko herri batzuetako esperientziak partekatu ditugu (Gabiria, Zizurkil) eta egitasmoaren inguruko lehen pausuak definitzen hasi gara (Sukaldaritza tailerra bertako produktuak oinarri hartuta egitea, adib)</p>	<p>- Siadecok bidalitako proposamena aztertu eta otsailaren 22rako aurkeztu.</p> <p>- Otsailaren 11rako aurkeztu.</p> <p>- Egitasmoa definitzen jarraitu</p>
	Herri Batzarra	Otsailaren 16rako jarrita dagoen Herri Batzarreko gai zerrenda osatu da.	
	Inauteriak	Martxoaren 2ko Inauteri Jaia antolatzen hasi gara eta arduradunak izendatu dira: Udaletxeko balkoiaren apainketa, ekintzen prestaketa, afaria.	
	Emakumeen eguna	Martxoaren 8rako, Ostatuan egingo den bazkariaz gain, Emakumeen Eguna aldarrikapen egun denez, beste gogoeta-ekintzaren bat antolatuz osatu nahi da: antzerki, bakar-hizketa, pelikula,...	<p>- Aurrekontuak eskatu</p> <p>- Ostatuan leku hartu</p>
	Formazio saioa	Aurtengo formazio saioetarako gaia proposatu da: elikadura	
<b>2019/02/19</b>  Hurrengo saioa: 2019/03/05	Herri Batzarra	Herri Batzarreko akta osatu genuen eta Batzarrean landutako <b>azpiegitura eta ingurumen gaiei</b> tarte luzea eskaini zaie.	Batzarreko akta banatu
	Alegiako frontoia	Alegiako frontoia erabiltzeko baimen eskaera etorri da Donostiako dantza talde	Erantzun ofiziala bidali



		baten eskutik. Martxoaren 24erako nahi dute. Baiezko erantzuna emango zaie.	
	Emakumeen eguna	Goierrri beheko M8 plataformak antolatu dituen ekintzen berri eman da: Ekitaldi nagusiak 12:00etan izango diren arren, eskualde mailako bategitea egongo da 18:30etan Lazkao, Ordizia eta Beasaingo plazetatik abiatuta. Itsason elkarretaratzea 13:00ean egitea proposatzen da (norberak bere mantala ekar dezala, plazan zintzilikatzeko) eta arratsaldeko bategitera joateko gonbitea ere luzatuko da.	Berdintasun bidean, planteamendu berriak aztertu eta Itsasorako M8ko proposamenak zehaztu
	Itsaso pelikulen eszenatoki	Dagoeneko herrian eta herri inguruan grabatu diren 4 pelikuletako aipamenak bistaratzea egoki ikusten da	Idea garatzen joan

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOIA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/02/12)</b>	Herri Batzarra	Herri Batzarrerako prestatu beharrekoak osatzen aritu gara. Deialdiaren kopia egin dira eta edukiarekin aritu gara: azken batzarretik honakoak (azpiegiturak eta diru-laguntza deialdiak), 2019ko aurrekontuak, inbertsio berrien aukerak, etab. PPT-etan txertatzen joan gara.	
Hurrengo saioa: 2019/02/26	Inauteriak	Herriko gazteek arduratuko dira deialdia zabaltzeaz eta egin beharreko ekintzak antolatzeaz. Ostua erreserbatuta dago afarirako.	Deialdia zabaltzeko izen-ematea ireki
	Emakumeen eguna	Bazkalondorako antolatu nahi den ekintzaren inguruan, greba deialdiarekin bat egiten dutenez, harremanetan jarri garen hainbat profesionalak ezezkoa esan digute.	Gaia aztertzen jarraitu